

2026KO MARTXOAREN 23KO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita seiko martxoaren 23an, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- FAKTURAK.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2025eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 111 zenbakidun zerrenda, ZAZPI MILA SIEREHUN ETA BERROGEITA LAU euro ETA HOGEITA ZORTZI zentimokoa (7.644,28 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

Fakturak aztertu ondoren, 2026ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 10 zenbakidun zerrenda, HAMAIKA MILA HIRUREHUN ETA BERROGEITA BI euro ETA LAUROGETIA BEDERATZI zentimokoa (11.342,89 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

II.- OROBIONE TABERNA-JATETXEAREN ERRENTAMENDU KONTRATUAREN URTEBETEKO LUZAPENA.-

2022ko ekainaren 10ean Lazkaoko Udalak, Orobione jubilatu eta pentsiodunen etxeko taberna ustiatzeko kontratua formalizatu zuen hasiera batean lau urterako. Administrazio-kontratu hau arautzen duen plegu administratiboak urtebeteko luzapen gehigarri bat egiteko aukera aurreikusten du, Administrazioaren erabakiaren mende.

Espedientean Orobioneren adjudikaziodunaren luzapen-eskaera bat dago. Eskaera hori kontratuan ezarritako sei hilabeteko aurreabisu epetik kanpo jaso bada ere, interesdunak adierazten du berariazko borondatea duela kudeaketarekin jarraitzeko eta horrela, legezko baldintza betetzen du, hau da, luzapenak beti esplizituki adostu behar direla eta inoiz ez isilpeko adostasunarekin.

Honen aurrean, eta espedientean dauden txostenak ikusita, Tokiko Gobernu Batzarrek, aho batez, honako hau erabaki du:

Lazkaoko Udalaren eta RADU RAMONA ROXANAREN artean, Orobione jubilatu eta pentsiodunen taberna ustiatzen duen pertsonarekin, izenpetutako kontratuaren urtebeteko luzapena onartzea.

Honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, onartu egin du.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Etxeko laguntza Zerbitzua.-

- 26-11-01 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea otsailaren 24tik, astelehenetik ostiralera egunero 3 ordu laguntz. Onuradunaren ekarpena %100 a izango da.

Garraiorako laguntza.-

- 25-14-01 zenbakidun esped.: Otsailean Gizakia Helburura egin dituen garrio gastuak ordaintzeko, 300,00 €ko diru laguntza ematea.

Kulturako eta denbora libreko jarduera eta ikastaroetako tasak ordaintzeko laguntza ematea.-

- 25-24-01 zenbakidun esped.: Otsaileko robotika ikastaroa ordaintzeko, 40,00 €ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren %100 a izango da.
- 25-24-02 zenbakidun esped.: Otsaileko marrazketa ikastaroa ordaintzeko 29,50 €ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren %100 a izango da.
- 25-24-03 zenbakidun esped.: Martxoko robotika ikastaroa bi seme alabei ordaintzeko $40,00 \times 2 = 80,00$ €ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren %100 a izango da.
- 26-24-01 zenbakidun esped.: Urtarrileko eta otsaileko marrazketa ikastaroa ordaintzeko $29,50 \text{ €} \times 2 = 59,00$ €ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren %100 a izango da.
- 25-24-04 zenbakidun esped.: Otsaileko robotika ikastaroa bi seme alabei ordaintzeko $40,00 \times 2 = 80,00$ €ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren %100 a izango da.
- 26-24-01 zenbakidun esped.: Otsaileko robotika ikastaroa ordaintzeko 40,00 €ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren %100 a izango da.
- 26-24-04 zenbakidun esped.: Urtarrileko eta otsaileko robotika ikastaroa bi seme alabei ordaintzeko $40,00 \times 2 = 80,00 \text{ €} \times 2 = 160,00$ €ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren %100 a izango da.

Joxemiel Barandiaran udal kiroldegiko bazkidetza jarduerengaitik ordaindu beharreko tasak ordaintzeko laguntza ematea.-

- 26-23-01 zenbakidun esped.: kiroldegiko sei hilabetetko bazkidetza familiarraren bonua ordaintzeko 180,75 €ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren %100a izango da.

Iparra Hegoa lankidetza programa.-

2026 urteko Ifarra-Hegoa laguntzaren deialdia egitea. Ifarra- Hegoako lankidetza arautegia 2024ko martxoaren 26an publikatu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

- Eskaerak aurkezteko epea deialdia GAOn argitaratzen denetik 30 egun.
- Aurrekontua: 20.000,00 €

Honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, onartu egin du.

IV.- BERDINTASUN ARLOTIK, AHOLKULARITZA ZERBITZUA KONTRATATZEKO PROPOSAMENA.-

Berdintasun Batzordetik, 2026-03-12an egindako bileran, zera proposatzen da:

- 2026 urteko Berdintasun Aholkularitza Zerbitzua Hezi2de enpresa esleitzea, Aurrekontua 14.900 € + BEZ.

V.- KULTURA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

- Lazkaomendik Jai Batzordeari.-

Lazkaomendiko jai batzordeari 2026 urteko festak antolatzeko aurrekontuan jasota dagoen zenbatekotik 3.000 €ko dirulaguntza aurreratzea.

VI.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

San Benito Ikastolari.-

San Benito Ikastolari, martxoan antolatutako Karraka festako oparien erosketak egin ahal izateko 313,73 €ko dirulaguntza ematea.

XV.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez dago galderarik.

X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta erdi direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.